

Zôon aktiboa eta pasiboa: gizaberea aska gozoan

Xabier Aierdi
Soziologia irakaslea eta UEUKidea

Indibidualismoak prentsa txarra dauka ia korronte soziologiko eta ideologiko guztietan. Hala eta guztiz ere, indibidualismoa eta indibiduazioa bereiztearen aldekoa naiz; lehenak, kapitalismoarekin dauka lotura eta, bigarrenak, modernizazioarekin. Kapitalismoa eta modernizazioa bereiztea gure gizarteko hainbat fenomeno azaltzeko emankorra izan daiteke. Hori da artikuluan egiten dena. Ulrich Beck-ek dioen moduan, gizarte arriskutsu batean bizi gara, baina ez bakarrik faktore teknologikoengatik, arrisku sozialak ere gero eta garrantzi handiagokoak direlako. Gizarte-arrisku horiek gaur egungo gizarteetako desinstituzionalizazioari lotuta daude, eta etorkizuneko gizarteek, baita proiektu sozio-politikoek ere, gizaki indibiduala kontuan hartu beharko dute.

Individualism has had very bad press in both the sociological and the ideological currents. Now, I am in favour of distinguishing between individualism and individuation. The first is related to capitalism and the second to modernisation. Distinguishing between capitalism and modernisation can be fruitful for explaining some present day phenomena. This is what is done in this article. As Ulrich Beck says, we are living in a society of risk, not only on the technological plane, but also on the social plane, where these risks are increasingly great. Social risks today are closely linked to the process of de-institutionalisation, and the societies of the future, as well as the socio-political projects, will have to take this individualised individual into account.

«Dagoeneko geure patu propioa kontrolatzen ez dugunean, indar ezkutu bat gure kontra ari dela pentsatzea gustuko dugu»

Pascal Bruckner, *Miseria de la prosperidad*.

La religión de mercado y sus enemigos, Tusquets, 2003

0. Abiapuntua

Indibidualismoa gure gizarteko gai errekurente bat izan da, baina beti kutsu negatiboa erantsi zaio. Pentsakera dominanteak bi lerro garatu ditu: nostalgikoek komunitatearen beharra azpimarratu dute eta ezkerreko ikuspegiak indibidualismoa menerapen-forma gisa ulertu dute¹. Batzuek eta besteek indibidualismoan *benefitako* gizatasunaren galera dakusate, gizakia txotxongilo bilakatu eta borondate *bahitu* baten (des)jabe delako. Baina kontu handiarekin ibili beharra dago, zeren horrelako ikuspegien begi-bistako hainbat aspektu hobetsiz, alde ezkutuagoak azalera ateratzeko oztopo izan litezke eta diskurtso *ideologiko* hutsak bilakatu. Aurreko bi ildo teoriko-ideologikoen arabera, indibiduoa izaki ahula da eta bere jatorrizko izaera berreskura dezan zuzenketa baten beharra du, aldi berean aurkikunde baten bilakera eta jasaten duen alienazioaren haustura ekarriko dituen. Gizakiak funtsean komunitatea behar du, erantzungo dute pentsamolde horietan kokatzen direnek: klase-komunitatea edota identitate-komunitatea, hots, gizakia berbideratu egin behar da jatorrizko *nonbaitera* hel dadin, ikuspegi araberako *nonbait* ugari eta desberdinetara. Komunitate eta gizaki indibidualaren artean nolako lokarria ezartzen den, askea edo itogarria², beste kontu bat litzateke, baina nolahi ere, garrantzikoena da indibidualistak komunitatera erakartzea. Gizakiaren benekotasuna berreskuratzeko beste saio bat *errepublikanismoa* da, komunitatearekin baino itunekin harreman handiagoa duena; errepublikanismoaren asmoa gizaki (hiritar) erantzuleen (konszienteen) komunitatea (gizarte zibila) lortzea baita. Irtenbide horiek, indibidualismoa gaitsetsiz eta gizakiaren oso ulerkera antropologiko negatiboa bideratuz, gizaki erosoazale eta berekoia dute etsai, *aska gozokoa*.

Baina kontu hau, Gizabere indibidualarena, bestelako abiapuntu batetik ere azter daiteke, indibidualismoa eta indibiduazioa bereiziz. Kasu horretan aurreko ildo kritikoez gutxi lagunduko ligukete, azalpen berri bat behar dugulako. Horrela, indibiduazioa modernotasunarekin lotu behar dugu; modernizazioa izango litzateke gizaki indibibiotuaren sortzailea, ez kapitalismoa³. Hipotesi hori egia balitz, indibiduazioak gehiago du sozialetik ideologiko, ekonomiko edo politikotik baino. Horren arabera, indibiduazioa, lehenik eta behin, gauza ororen gainetik gertakari moderno

1. Esaterako, aspaldi, Habermas-ek kontsumoa, indibidualismoaren ezaugarri nagusienetako bat kontsideratuz, sistema ekonomiko kapitalista eta dagokion dominazio-sistemarekiko atxikimendu legitimatzailea lortzeko bidea zela zioen.

2. Ernest Gellner, *Las condiciones de la libertad. La sociedad civil y sus criticos*. Paidós, Bartzelona, 1996.

3. Harremana konplexuagoa dela ohartzen naiz, modernizazio ez kapitalistak garatzeko ereduak gutxi izan direlako eta porrot egin dutelako, baina Estatu-sozialismoa modernizazio-saiakera alternatiboa izan zen. Horregatik uste dut, merezi duela kapitalismoa eta modernizazioa bereiztea, bestela ezingo dugu ezer azaldu.

bat da; bigarrenik, ezin dugu gertakari horren esistentzia ekidin eta, azkenik, aldarri ideologikoen logika alde batera utzita, beste kausa batzuen bila hasi beharko genuke, ez baikinateke gizakiaren borondate *bahituaren* aurrean egongo. Ereku kulturalan legoke aldaketarik sakonena eta instituzioen ahulezi hazkorrean bere erritmoaren azelerazioa. Beraz, hemen arakatu nahi dudana honakoa da: ez ote dago eremu kulturala oso autonomizatua eta, ondorioz, gizarte-instituzioen izaera hertsakorra guztiz indargabetuta, eta egoera horrek ez ote dio indibiduoari gero eta espazio handiagoa eskaini?

1. Gaur egungo indibiduoaz

1.1. Duela hogeita zazpi bat urte

Duela hogeita zazpi bat urte, pentsamolde amerikar neokontserbadoreak, Daniel Bell buru zuenak, kapitalismoaren baitan krisi kultural bat zekusan. Tesi horren arabera, gizarte kapitalistetako hiru gizarte-egiturak (ekonomikoa, politikoa eta kulturala) ez zetozen bat, zeren egitura ekonomikoak eta politikoak sistema beraren baitan barne-aurkari bat baitzuten: *sistema kulturala*. Lehenengo biak gizakia kontrolatzeko tresna edo gune ziren eta, hirugarrenak, egitura kultural menderakaitzak, gizaki askea eta kontrolaezina eskaintzen zuen. Kontrola langile-tasunaren eta hiritar demokratikoaren arabera garatzen zen, baina esparru kulturalan gizaki autonomizatu bat geneukan, ia independizatua. Gizaki horrek hedonismoan zituen erroak.

Horrela, kontraesan intrasistemikoaren muina *hedonismoa* versus *gizarte integrazioan* zetzan. Hedonismotik abiatuta, gizakia helburu komunetarako berbideratzea zaila zen, ezinezkoa ia. Gizarte-helburuek kolektibotasuna edo gizarterako moral-motaren bat bazuten helburu, hedonismoaren zentroa gizaki beraren *auto-garapen* mugaezinean zetzan. Bi logika kontrajarri eta bateraezinak. Neokontserbadoreek orduko botere politikoaren laguntzaz, Reagan-en urte indartsuenak baitziren, erlijioak zementu-lana egin zezakeela uste zuten. Erlijioaren bidez lortu behar zen «Instaurazio handirantz berrabiatzea...». Erlijiora itzuliz gero, berriro lor ziekeen gizakiak ez garatzea bere «ego»aren inguruan murgilduta joera zentripetorik. Erlijiora buelta eginez, agian, bigarren erreforma protestante bat letorke eremu kulturalera, gizakiaren aseintasuna sistemaren barnelogikara berbideratuz.

Bell-en diagnostikoaren arabera, berriztasuna eta beti berria denaren bilakeratik sortu da gizaki modernoaren askatasuna. Horrela, modernotasunaren logiketariko bat abangoardia izan denez, eta abangoardiak indarrean dagoenaren arakatzeko iraultzaileko bide berriak etengabe bilatu behar dituzenez, gizakia bera ere bere buruaren abangoardia bilakatu da eta, bere gorputzaren jabe dela esanik, esperimentazio amaigabeen gurgilean garatu nahi izango du bere bizitza. Bell-en esanetan: «*hybris* modernoa mugak onartzearen ukazioa da, norberarengandik harago etengabe joateko insistentzia; mundu modernoak beti *harago* dagoen patu bat proposatzen du: moral-tasunetik harago, tragediatik harago eta kulturatik harago»⁴.

4. Daniel Bell, *Las contradicciones culturales del capitalismo*, Alianza, Madril, 1984.

Ordutik hona, neurri batean, zeharo aldatu dira testuinguruak, baina bitxia da nola kontserbadoreen tesia, modu eta kausa ezberdinetan oinarrituz, egungo tesi dominantea den ezkerreko hainbat posiziotan ere. Zer gertatu da horretarako?

1.2. Neokontserbadoreek asmatu ote dute?

Peter Berger, gero eta kontserbadoreago bilakatu dena, “hogar”erik gabeko munduan geundela zioen. Arrazionalizazio teknologikoak eta logika burokratikoak ekarri duten kontzientziak gizarte-bizitzako munduen aniztasuna ekarri du; pertsona batek bere burua ikusteko aukera du hala bizi duen bizitza zehatzean nola alternatiba posible ugaritan, eta horrekin batera, “proiektu bitala” posible delako kontzientzia sortzen du. Bestela esanda, gizakia, hala bere bizitza nola bere biografia osoa, proiektu *diseinatu*a izan daitekeela konturatzen da. Bere hitzetan, «bizitza epe luzera planifikatzean, gizakiak *egingo* duena planifikatu ezezik, *izango* dena ere planifikatzen du»⁵. Planifikazioa gizarte tradizionalerako patua ordezkatzera dator gizarte modernoan.

Planifikazioaren ideiak denbora eta espazioaren ulerkera berri bat dakar: den-dena arrazoi finalistaren (zerbait lortzeko) logikarekin egiten da, espazioak ematen dituen aukera guztiak kontuan hartuz. Bizitza-ingeniaritza da nagusi eta den-dena bitartekoen eta helburuen arteko logikara erreduzitu egiten da, arrazoi instrumentalera. Horrek guztiak gizaki modernoaren identitate pertsonalean eragin izugarria dauka. Horrela, bere ustetan, identitate hau zabala, subjektibotasun handikoa, berezia, erreflexiboa eta, batez ere, indibiduatu da. Berger-en analisisian, eta gero hainbat egilerenean, identitate-mota horrek nahitaezko *desinstituzionalizazio* prozesua eragiten du. Oso zaila baita nork bere burua *artelan* bikaintzat aintzat hartuta instituzioek eskatzen duten logika anti-individualistetara mugatzea. Berger-ek daukan azpiatal zoragarri batean⁶ *gizakien* eta *instituzioen* arteko soka-tira hau «*ohoretik duintasunera*» doan trantzisioarekin azaltzen du: duintasuna nonahi exigitzen duen mundu bat egokitu ote daiteke instituzioetara? Rol instituzionalak eta erabateko duintasuna elkartzea posible ote da?

1.3. Duintasuna ote da, agian, XX. mendeak gizakiari eskaini dion opari (pozoindu/askagarri?) bikainena?

Duintasuna iragarritako zegoen ilustrazio garaiak gizakiari igortzen dion erronketan: «Izan zaitez heldua, joka ezazu askatasunez eta zeure gain har itzazu hala eskubide nola erantzukizunak». Hainbatek esan moduan, patua aukera bilakatu behar zuen gizaki modernuak. Gizaki moderno horren eraikuntzan eta dagozkion eskubide eta erantzukizunetan duintasuna da, agian, oparia. Duintasunak, halabeharrez, indibiduatu eta berdindu egiten du gizakia. Duintasuna kolektiboa izan daitekeen arren, gehiago da norbanakoaren izaera eta jarrera. Duintasunak, logikoki, gizakia eranskin kulturaletatik erantzi, kulturgabetu, egiten du, eranskin horien atzean dagoen gizatasun menderaezina bilatzeko. Lehendabizi, indibiduo zara, gero, agian, kulturaduna.

5. Peter Berger, Brigitte Berger eta Hansfried Kellner, *Un mundo sin hogar. Modernización y conciencia*, Sal Terrae, Santander, 1979.

6. Peter Berger, Brigitte Berger eta Hansfried Kellner, “Sobre la obsolescencia del concepto del honor”, in *Un mundo sin hogar. Modernización y conciencia*, Sal Terrae, Santander, 1979, 81-93 orrialdeak.

Duintasunak, beraz, bi alde lituzke. Alde positibo bat: gizakiaren askatasunaren bermea da. Bestalde, duintasunak badu alde negatibo bat: oso era zailean uztartzen da instituzio eta moral kolektiboekin. Geure buruari, orduan, galdera bat gertatzen zaio errekamaran: beharrezkoak ote dira, edo zenbateraino, instituzioak? Dilema horren inguruan, *askatasuna* vs *segurtasuna*, oraintsu mintzatu da Zygmunt Bauman, esanez biak beharrezkoak izan arren, zailegiak direla gatazkarik gabe adiskidetzen. Eta gehienetan, gatazka horiek oso bortitzak dira⁷. Bere ustetan, askatasunik gabeko segurtasuna esklabutza da eta segurtasunik gabeko askatasuna gizarte-isolamendua. Gaur egungo egoeran, duintasunari uko egitea oso zaila da, gure osagai konstituentea baita, ezinezkoa egiten baitzaigu duintasunik gabeko biografiarik irudikatzea eta jasatea.

1.4. Gizaki duinaren irudia neurri handi batean fikzio liberal bat da.

Baieztape hori, printzipioz, kontraesan batean oinarrituta dago. Alde batetik, irudi eta fikzio hitzak erabiltzen baititu eta, bestetik, hitzok errealitate errealtzat hartu. Fikzio eta errealitate horren artean oso harreman interesgarriak daude, eta oso ondo aztertu ditu Michael Ignatieff-ek⁸. Berak, ezelako erreparorik gabe, honakoa diosku: “Gizatasun abstraktua gizaki konkretuenganako gorrotoarekin ederto konpatibiliza daiteke”. Hori egiten dute gaur egun eskuma eta ezkerreko liberalek.

Gizatasunaren fikzio liberalaren atzean printzipio bat dago: gizakien arteko ezberdintasunak beti direla txikiak eta denok anai-arrebak garela. Fikzio liberal horrek hainbat datu enpiriko baliogabe utzi behar ditu, pertsona konkretuak ukatu, begi-bistako datuak ekidin eta, horien guztien gainera, denon arteko esentzia komuna bilatzera behartu. Ignatieff-en hitzetan, pentsakera horrek identitateari honako erronka planteatzen dio: “Lehenik eta behin, subjektu juridikoak gara, esku-bide eta erantzukizun berberak dituzten hiritarrak; ezberdintasunak beti tenore txikikoak dira, eta ezberdintasun horiek abantailarik ekarriz gero, errotik zuzendu behar dira”.

Zenbat du pentsakera horrek itsukeritik, zenbat itsukeri beharrezkotik eta zenbat beharrezkoa ez denetik? Ignatieff-ek dilema horren kontzientzia dauka eta horregatik diosku: «xx. mendearen amaierako biztanleok gizaki guztiak barne hartzeko inolako asmorik ez zuen hizkuntza unibertsal baten herederoak gara: eskubideberdintasuna». Baina bere ustez, perspektiba historiko batetik ezin daiteke hori hipokresia hutsa denik esan, zeren pentsamolde hori izan gabe, ezingo genuke «gizaki berdinen gizarterik» asmatzeko ahalmenik izan. Baina, behin esperimento liberal hori sendotuta, talde baztertu guztiek bere egin zuten hizkuntza unibertsal hori eta, inoiz praktikatu ez bada, aldarrikatu bai, ordea. Baina, bestalde, sozialki, neurri handi batean, eskubideen propaganda asumitu egin da eta baita praktikatu ere, ahal izan den moduan gure inguruko herrialde aurreratuetan.

Hizkuntza unibertsal horren hedadurak fikzioa errealitate bilakatu izana azaltzen du. Zalantza ugari eduki genezake errealitate horren izaera objektiboaz, baina

7. Zygmunt Bauman, *La comunidad*, Alianza, Madril, 2003.

8. Michael Ignatieff, *El honor del guerrero. Guerra étnica y conciencia moderna*, Taurus, Bartzelona, 1999.

fikzio konpartitu eta intersubjektibo horrek sendotasun itzela eman dio fikzioari —eta ikuspegi fenomenologiko batetik, objektibotasun soziala—, horrexegatik gutxi dira gaur egun eskubide-berdintasunaren hizkuntza eta duintasunaren aldarritik kanpo geratzen direnak edo parametro hauetatik kanpo euren biografia dakusate-nak. Horrela, kontraesan logikoa ez dator bat kasu honetan kontraesan soziala-rekin. Garai bakoitzeko ilusioak gorpuztu egiten dira, agian, praktikatu ezin diren arren. Fikzio izanik ere, oso fikzio eraginkorra da. Sozialki letra ahaztu arren, melodia oso seduktorea da.

1.5. Hiritarraz, zer?

Aurreko gutzia bilduz gaur egungo hiritarra dugu. Hiritartasunaren bilakaeran aurrerapauso eta atzerapauso nabarmenak gertatu izan dira. Hiritarra fikzio liberalak muntatutako ekoizpena da, erroak oso antigoaleko gizarteetan baditu ere. Orditik hona, hainbat eskubide irabazi ditu hiritartasunak: eskubide zibilak, politi-koak, eta ekonomiko-sozialak.

Baina eskubideen kate hori ez da uste zen bezain progresiboa, metakorra ezta logikoa ere. Kate historikoa da. Irabazi dena, batez ere Ongizate-Estatuaren era-ginez, galdu egin zitekeela ohartzean, hiritartasuna eremu labankorreen ezarria zegoela jakin izan dugu. Beraz, hiritartasuna ez da estatus bat, ez da eskubide bilduma ere, atzerakadak eta aurrerakadak jasan ditzakeen *prozesu* bat baino.

Horrela, neoliberalismoaren bultzadaren ondorioz, hainbat eskubide ekono-miko-sozial pikutara joan direnean, hiritartasunaren estatu-zentrismoaz konturatu gara, gainerako herrialde askotan eskubiderik gabeko hiritartasun ugari baitago. Hau da, mundua gaur egun *apartheid*⁹ batean oinarritua dago eta bi eratako gizakiak daude: gehienak pertsona baino ez dira, hiritartasun geografiko edo esta-tala eduki arren; herri aberatsetakoak, ordea, gizatasunezko hiritarrak. Beraz, hiri-tartasun estatus bat lorzeko oso garrantzizkoa da bizitzaren loterian Estatu egokian jaio izana, bertan eskubideak garatuta eta onartuta egon daitezkeelako. Baina, bestalde, praktikan mendebaleko gizarteetako bizi-maila ezin da unibertsalizatu eta horrexegatik munduko populazioaren gehiengoa pertsona baino ez da. Horren aurrean, Luigi Ferrajoli-k zentzuzko proposamen bat plazaratu du: hiritartasunaren eskubideak baztertu eta pertsonenetara itzuli. Lehenak ezin dira unibertsal bihurtu, funtsean, eskubide aristokratikoak direlako, eta bigarrenak unibertsalak dira, denok baikara pertsonak. Ferrajoli-k badaki egungo *apartheid*aren argazkiko negatiboa mendebaleko hiritarra dela, mendebaleko bizi-maila. Eta, gaur, mintegi honetan aztertzen gaudena mendebaleko *zôon*-a da. Mendebal-ean hiritar horrek bere egin du gizaki askearen fikzioa. Gure mundu pribilegiatu honetan gizaki horren estatusa orokortua dago eta Ulrich Beck-en ustez “askatasunaren semeak”¹⁰ dira/gara.

9. David Held eta Anthony McGrew, *Globalización/antiglobalización. Sobre la reconstrucción del orden mundial*, Paidós, Barcelona, 2003. Bereziki 6. kapitulu. Baita ere, Richard Falk, *La globalización depredadora*, Siglo XXI, Madril, 2002.

10. Ulrich Beck, *Hijos de la libertad*, FCE, México, 1999. Bere emazteak, lan horren aplikazioa familiaren baitan aztertu du: Elisabeth Beck-Gernsheim, *La reinvencción de la familia. En busca de nuevas formas de convivencia*, Paidós, Bartzelona, 2003.

1.6. Instituzio zonbiak

Ulrick Beck-ek *kategoria zonbiez (instituzio zonbiez)* hitz egin du bere azken idazkietan. Bere ustetan, gero eta nabarmenago, instituzio *zonbien* aurrean gaude, teoriar osasuntsu baina funtsean hilda daudenak. Berak eta bere emazteak, adibide modura, familia ikertu dute. Ironia pixka batekin diote familiaren iraupenaren bermea gehiago dagoela soziologiaren eskema zaharkituetan errealitatean baino. Gaur, gizakia, arriskuen mundu batean bizi da, ez soilik arrisku teknologikoetan, arrisku sozialetan ere. Hiru instituzio erraldoiak (familia, lana eta Estatu) instituzio zonbiak dira, eta horien artean eta tartean, gizakia eremu labankorreetan legoke, ez baitauka euskarri sendorik bere burua kokatzeko; horixe izan baita instituzioen funtziorik nabarmenena, gizakiari *topos* objektibo batzuk eskaintzea momentu oro nor den eta non dagoen jakin dezan. *Topos* objektiboaren ordean, gaur egungo egoeretan instituzio eta errealitate subjektibizatuetan geundeke eta eguneroko egiturak gainerakoekin etengabe bernegoziatu behar ditugu.

Topos horien zonbitze-prozesuari «norberaren biografiaren eraikuntza» gainerazari behar zaio. Norberaren biografia eraikitzea gure bizitzaren ardatz bilakatu da. Ardatza, ez gure borondatea delako, beste erremediorik geratzen ez zaigulako baino. Instituzio indargeek krisi sistemikoari irtenbide pertsonalak bilatzen behartu egiten gaituzte. Instituzioen rola ez dira gaur egun hertsakorrak eta rola jokatzeko baino rola pertsonalizatzen gaude, behin eta berriz. Lehen, rola exigitzen zuten gidoi bat betetzearen ordean, gaur, itunak daude, pertsonen arteko itunak, egunero berrezarri behar diren itunak gainera. Elisabeth Beck-Gernsheim-ek¹¹ familia aztertu duenean eta, esaterako, emakumearen pertsonalizazio-prozesua ikertu, aldaketa kulturala modu oso hautemanezinean gertatu dela dio¹². Faktore kausal iraultzaile bat hezkuntza litzateke. Etorkizunean rola pertsonengan oinarritu beharko dira, indibiduoengan, gaur egun edukirik gabeko karkasa bihurtzen ari dira eta.

Ulrick Beck-en ustez, errealitate gero eta nabarmenago horri ezin zaio indibidualkeriaren kritika egotzi, indibidualizazioa eta atomizazioa ez baitira gauza bera, eta honakoa dio: «[biografia ekoizteko asmoa] Indibiduala dirudi, baina eskema baten arabera garatzen da»¹³. Beck-en inkognita honakoa da: zerk eragiten dio hainbat pertsonari euren bizitza ekoizteko gogo, zergatik dago hain orokortuta gogo hori? Erantzuna beste inkognita bat da, oraindik ez duelako horrentzako erantzun erabatekorik, eta seguruenik —dio— *gizakien eta gizartearen arteko erlazio berri bat ezarri edo bilatu edo lortu beharko da*. Edonola ere, bere

11. Ulrick Beck/Elisabeth Beck-Gernsheim, *La individualización. El individualismo institucionalizado y sus consecuencias sociales y políticas*, Paidós, Bartzelona, 2003. Ulrick Beck-ek erabiltzen dituen hainbat kategoria analitiko oso nahasiak iruditzen zaizkit, baina oso interesgarriak dira bere emazteak ikerketetan oinarrituta liburu honetan argitaratzen dituen artikulua, bostgarren kapitulotik hamargarrenera artekoak.

12. Gaur egungo genero-biolentziaren atzean pertsonalizazio horren aurrean gizonaren erreakzio biolentzia dago nire ustez. Etxekoandre, emazte eta amaren rola atzean pertsona bat dago, indibiduo bat dago, eta dagokion duintasun pertsonala aldarrikatzen du. Horren aurrean, senar deskolokatuak, batzuetan dibortziara jotzen du, beste batzuetan egoera berrira egokitu egiten du bere portaera, eta hainbatetan pertsona berria hil egiten du.

13. Ulrick Beck, "Vivir nuestra propia vida en un mundo desbocado: individuación, globalización y política", in Giddens, A. eta Hutton, W. (argit.), *En el límite. La vida en el capitalismo global*, Tusquets, Bartzelona, 2001, 233-245 orri.

analisiaren arabera, ondorio bat atera beharko genuke: etorkizunean, gizarte-kohesiorako edozein saiok mendebaleko kulturaren osagai ekidinezinak diren indibidualtasuna, dibertsitatea eta eszeptizismoa onartzetik abiatu beharko du. Ez da agertuko inolako komunitate automatikoaren laguntzarik. Zygmunt Bauman-ek esan moduan, zerbait egitekotan «era indibidualean, baina batera» egin beharko dugu. Zaildu egingo da gizarte-kohesioa, zaildu gizakion bizitza eta, hala eta guztiz ere, oso ahul eta labankorra izango da sortuko dugun errealitate soziala.

1.7. Zirkulua itxita: diagnostiko berberera heldu

Bide ezberdinetatik, kausa ezberdinak identifikatuz, neokontserbadoreek begizatutako abiapuntu berberera heldu da gizarte-zientzietako ikusmolde progresista: eremu kulturalaren autonomizazioak sortzen dituen arazoetara. Gizarte modernoak paradoxa intrintseko bat bizi du: «indibidualismo instituzionala». Horrela, nahitaez, denok, Virginia Woolf-ek emakumeentzat eskatzen zuen moduan, «logela propioa» eskatzen ari gara.

1.8. Indibidualizazio horrek nora garamatza?

Indibidualizazioaren prozesuak eta nork bere bizitza antolatu gura izateak komunitatearen ahulezia dakarte, komunitatea zelako gizarte modernuko proiektuek berreraiki nahi zutena. Zygmunt Bauman-ek ez du sinesten modernotasunak inplizitoki proiektu bat izan duenik; bai, ordea, konstante bat: jarrera normatiboa. Hala liberalismoak nola marxismoak konbentzimendu bat zuten: oraina menderatu egiten zutela eta horrek etorkizun aurreikusgarri bat diseinatzeko bidea ematen ziela. Beraz, proiektu bakarrean baino proiektua beharrezkoa zenean bat zetozen. Hortik aurrera, gizarte modernoa, bere hitzetan, *oso legegilea da*, dena arautu nahi du, hala nola ongia, egia eta edertasuna, baita jabegoa, berdintasuna eta zoriontasuna ere. Haien logikaren arabera etorkizunak diseinua behar du eta ezin dira gertakariak berez garatzen utzi. Progresuaren garaia zen eta denek —bakoitzak bere erara— argi zeukaten zertan zetzan. Asmo normatibo eta legegile horri Emilio Lamo-k «*kontsentsu eszinditu*» deitu dio, zeren bideak ezberdinak izan arren, logika inplizitua berbera baitzen¹⁴.

Bauman-ek proiektuz betetako modernotasun horri *modernotasun solidoa* deitu dio. Solidoa jendeak bazekielako zertan zetzan historiaren filosofiak agintzen zuena eta horren neurriko komunitatea sortu nahi zutelako. Horrela, bere ustez, modernotasuna —solidoa— hiru konfiantza-motatan oinarritzen da: norberarenganako, besteenganako eta instituzioenganako konfiantzan. Egungoa, ordea, modernotasun *likidoa* da. (*Gaseosoa*, hurren-goa?). Egoera likidoan oso garrantzizkoa da sustrai sendorik ez edukitzea, arrakasta lortzeko kontserbadore ez izatea, mugikorra izanik ohiko kokagunerik ez edukitzea eta, batez ere, gauzak beti berriro hasteko prest egotea. Horren guztiaren ondorioz, nork bere aukeraketen arabera bizitza antolatu

14. Laburbilduz, kontsentsu horren osagaiak ondokoak lirake: 1. Aurre-suposizio epistemologiko eta teoriko ezberdinak dituzte (*ekonomia vs. kultura*), baina gainerakoan bat datoz; 2. Zientzia soziala posible eta desiragarria delako ustea; 3. Mendebaleko arrazionalitatean fede ikaragarria, beraz, ilustratuak eta optimistak ziren, eta inolako zalantzarik gabe arrazoiaren unibertsaltasunean guztiz sinestunak ziren. 4. Ikuspegi teleologikoa: historiaren norabidearen filosofia deskubritu behar zela uste zuten; eta 5. Estatu-naziozentristak ziren, hau da, nazionalismo metodologikoa praktikatzen zuten. Emilio Lamo de Espinosa, "La sociología del Siglo XX", *Reis*, 96, Madrid, 2001, 21-49 orrialdeak.

gura izateak logikoki *tolerantzia* eta *horren gestiorantz* abiatu beharko gintuzke, baina edozein biziera ontzat hartzen duen tolerantziak erlatibismo asko eta segurtasun gutxi dakartza. *Hurbilago* dago aspaldiko lelo famatu hartatik: «bizi zaitetz eta bizitzen utz ezazu!». *Hurbilago, beraz, desertziotik*. Horrela, autore askoren ustez, egungo gizaki modernoak desertzio-forma ezberdinak bilatu ditu. Gizarte modernoak eskatzen zuen askatasunaren erabilerari zegozkion erantzukizunetatik alde egitea eta horren bidez *komunitate proiektatuei* uko egitea da desertzioa.

2. Desertzio-erak

2.1. Hiritar inpekableak

Rafael Del Aguila-k aspaldi idatzitako liburu batean (*La senda del mal. Política y razón de Estado*), *inpekabilitatea* zeharo ugaldu den jarrera dela dio. Zehazkiago, hiritar *inpekableaz* mintzatu da. Hiritar inpekablea justizia eta politikaren arteko talkak ekidin gura dituen da. Jarrera inpekablea sistema liberalaren baitan sortua eta zaindua da eta, era berean, sistema horrek arazo handirik gabe funtziona dezan ezinbesteko betekizuna. Hiritar inpekableak mundu politikoaren armonia sakonean sinesten du eta uste du armonia hori berarengandik pasatzen dela, bere indartzetik eta bera zaintzetik. Armonia horren arabera, hiritar inpekableak uste du berak hartutako erabakiak egokiak direla beti. Beti justuak eta ikuspegi moral batetik akatsgabeak direla. Ikuspegi horretan ez dago dilema politiko, tentsio mingarri edo erabaki neketsuetarako tokirik. Bera, hiritar inpekablea, munduaren zentroa izanik, eskubideen subjektua da eta legea errespetatzeaz harago, ezin zaio funtsezko ez den betebeharririk eskatu; bera da boterearen iturria eta horrexek egiten du subirano; berak eska dezake bere ordezkari eta botere publikoetik bere desioak asetzea eta bere zorientasuna lortzea, horixe justiziarekin bat dator eta. Bere inozentzia eta perfektzioa bermatuta daude: horrexegatik da inpekablea.

Hiritar inpekableak bi bertsio ditu: bata, eskumakoa; bestea, ezkerrekoa. *Eskumakoan*, hiritar inpekablea bere lorpenak hartu, erreklamatu eta zihurtatzeko eskubideak eskatzen dituen indibidua da. Ez du onartzen betebeharririk, pakean utz dezaten eskubidea du eta bere betebeharririk zibikoak ekiditeko aukera eduki behar du. Gehienez, exigentziak minimora erreduzitu behar zaizkio eta, gainera, bere auto-adierazpen mugagabearekin konpatibleak izan daitezela eskatuko du.

Hiritar inpekablea, orokorrean, beste kontu batek bereizten du: dena doakoa izan behar zaiolako ustea. Horrela, politikan ez ahaleginik, ez lanik, ez tentsiorik, ez galerarik, ez sakrifiorik, ez zalantzarik. Ezta komunitate demokratikoa mantentzeko beharrezkoak direnak ere. Horrela, badu ondo egokitzen zaion demokraziaren definizio bat: hiritarrei arduragabetzeko eskubidea dien gobernu-modua; gu demokraziarentzat egon gabe, demokraziak guretzat egon behar du. Mandeville-ren erleen fabula aintzat hartuta, eskumako hiritar inpekableak bere bizio pribatuek (desioa goraipatzea, gatazka ekiditea, eta abar) bertute publikoetan bukatuko dutela uste du. Bitxia da, dio Rafael Del Aguila-k, nola erretratu hau, heteronomia eta dependenziaren irudi dena, gaur indibiduoaren autonomia gisa ulertua eta aurkeztua den.

Ezkerreko bertsioan, hiritar inpekableak munduak txarto funtzionatzen duela uste du. Nonahi pobrezia, bazterketa, injustizia eta krudeltasuna dagoela, baina horrek ez duela zerikusirik bere estatus konkretuarekin. Uste du, halaber, demokraziak kapitalistak direla. Beraz, kapitalismoa eta bakarrik kapitalismoa da gure gizarteetako gatazka, arazo eta zatiketen erantzule bakarra. Horrela «gaiztakeriaren» erantzukizunetatik baztertua geratzen da. Jakin badaki, ez dagoela kapitalismoarentzako alternatiba bideragarriarik eta ongizatea krisian dagoela, orduan, bere interesa estatu-politikatik gizarte zibileko politikara lekualdatzen du, hor aurkituko baitu bere neurriko erantzun etikoa.

Lehenengo jarrera infantilizazioa da; bigarrenena, biktimizazioa. Baina horietaz, geroago hitz egingo dut. Hiritar inpekablearen atzean —Walzer-en hitzetan— hiritartasun politikoa eta partaidetzari aurre egiteko modu erromatarra dago. Modu greziarrak partaidetza zuen oinarri; erromatarrek, ordea, eskubidedun pertsona. Bigarren horretatik hiritar inpekablea izateko jauzi txikiagoa egin behar da, eta gaurko mintegi honetan hiritar greziarren nostalgiarekin gaude eta egungo errepublikanismoak ez dauka horren aurrean, nire ustez, erantzun nahikorik. Errepublikanismoaren oinarritzko printzipioa interferentzia arbitrarioak *onartezinak izatea* da. Eta gaur egungo gizarte estiloa, ordea, interferentzia guztien ukazioa da: Utz nazatela pakean! Hau da, gaur egungo hiritarraren modu dominantea berme sozial guztiak eskatzen dituen indibiduo *libertarioa* da.

2.2. Beste era bat: garaileen desertzioa

Robert Reich-ek *Nazioen lana* liburua idatzi zuen eta garai batean Clinton-en aholkularia izan zen Osasun Zerbitzuetan. Bere ustetan, badago sektore bat gizarte aurreratuetan, gero eta nabarmenagoa, euren biografia berrikusten dutenean inolako zorrik onartzen ez dutenena. Euren bizitza euren bano ez dagozkien merituen emaitza da eta, behin zubiak igaro ondoren, dinamitatu nahi dituzte. Jarrera horrek «self-made-man»aren filosofia bere egiten du. Euren gurasoak aurrera eramane dituzten bataila kolektibo eta solidarioei esker heldu dira dauden tokira, baina herentzia hau kapitalizatu ondoren pribatizatu egin dute, eta behin *nonbaitera* heldu ondoren *dependentziari* —babesa behar duten sektore sozial baztertuei— buruzko diskurtso oso negatiboa plazaratzen dute.¹⁵ Jarrera horren bidez, konpromisoa eta erantzukizuna galtzaile ateratzen dira. Jende horrek gehiago galtzen du irabazi baino komunitatearen premietara edo helburu kolektiboetara egokituz, bide horri jarraituz askatasuna —eta, batez ere, ondasunak— galdu egin dutela uste dute eta. Komunitatea elkarrekiko elkartasunaren gunea da; desertzio hori, ordea, garaileen harrokeriarena da. Garaileak dira bakarrik isola daitezkeenak, inoren beharrik ez dutenak, eta azaleko eran, hala politikan nola ekonomian, merkatu- eta estatu-liberalismoa eskatzen dutenak.

2.3. Adin txikiko helduak

Direla lauzpabost urte, Pascal Bruckner-ek liburu bat argitaratu zuen: *La tentación de la inocencia*. Liburu horretako tesiaren arabera, gaur egungo egoeran gizakiok lehenengo eta behin haurtzaroa deskubritu dugu. Joan den mendeko 50eko

15. R. Sennet, *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*, Anagrama, Bartzelona, 2000.

hamarkadatik aurrera, haurtzaroa gero eta garai fantastikoagoa bihurtu da, esku-bidez hornitua eta erantzukizunik gabekoa baita. Umea «basati onaren» mitoaren edukiekin hornitu dugu, zeren umea, eroa, errebeldea, artista eta basatia orde-narekiko errefraktarioak baitira. Bruckner-ek dioen moduan: «zibilizazio nekatuek gazteri erretrospektiboaren oasiak ekoizten dituzte... Umearen umetasunari hain balio handia ematen diogu, ezen hura inbertitu egiten den eta superioritate bilakatu». Heldua izatera heltzea gaztaroko promesak traizionatzea denez gero, gudan lo dagoen eta berjaio gura duen betiereko umea beneratu behar da. Umea, beraz, desarduratua, apetatsua eta, batez ere, erantzukizunik gabekoa da: inozentziaz betea. Inozentzia horretan kokatu gura dugu gure bizitza, onartu barik hala «[umea, gutariko bakoitza] inozentzia galtzeko eginda dagoela» nola «koertzioa dela askatasunaren baldintza bera». Disneylandia da eredia, bertan heriotza, gaixotasuna eta gaiztakeria ezeztatuak gertatu direlako.

Heldua izatea desio asezinak garaitzea da eta oztupoak askatasuna lortzeko ezinbesteko aurkariak direla onartzea. Helduek mugen kontzientzia daukate, edo bestela ume dira. Baina, egun, individualismo heldu eta erantzuleari individualismo infatila kontrajartzen zaio, formula magiko bat transferituz: umeak eskubideak baino ez baditu, nik neuk ere ume izan nahi dut. Umeari permititzen zaiona helduaroari aplikatu gura diogu: egin iezaiozu bakarrik kasu zure singularitateari; ez zaitetz kezkatu ez erreformaz, ez progresuz ez hobekuntzez; erein eta zaindu zeure subjektibitatea, zurea izate hutsagatik perfektua delako; tentaldiei ez jarri erresistentziarik, desioa subiranoa da eta. Ondorioa honakoa da: “gu geu izatea astuna da oso eta ezin zaigu ez betebeharrak ez agindurik exigitu; alde horretatik libre nago, nire estatusa guztiz merezia dut eta”. Bruckner-ek berak dioen moduan «apetaren subiranotasuna muturreraino eramaten denean, ez da bakarrik alteritatearen printzipioa suntsitzen: subjektuaren beraren oinarriak ere ahuldu egiten dira»¹⁶.

2.4. Eta orain, zer?

Badirudi aipatu ditugun sintoma hauek guztiak individualismoarekin soilik dutela harremana, eta kapitalismo eta kontsumoarekin oso lotuta dagoela, neurri handi batean gaur kontsumo pertsonalizatua oso hedatua dago eta. Baina kontsumotik harago gaude. Kulturaren eremua ekonomia, politika edo gizartearenarekin konparatuta askoz geldoago mugitzen da, baina munduan egoteko modu berri eta generalizatu hauek dagoeneko gure izaeran oso errotuak badaude, ez ote gaude beste zibilizazio baten atarian? Norainokoa da eremu kulturalaren autonomizazioa? Gizarte-mugimenduak azaltzeko balio kulturalen eraldaketa arazorik gabe onartzen badugu, zergatik ez erabili beste hainbat gertakizun azaltzeko?

Postmaterialismoaren irakurketa kritikoetan balio aukeratuen eta praktiken artean eten ikaragarri bat dagoela erakutsi zen. Baina, neurri batean, *praktikak* maila kulturalen kokatu behar dira. Ikuspegi egiturazale batek praktika sozialetan une zehatz bateko determinazio eta baldintzapen sozial guztiak biltzen direla esango luke, baina eremu kulturalerako *modus operandi*-ak ere ager litezke, eta nire ustetan hor gaude aspaldi kokatuak. Ongizatearen ideialak, metarrelatoen gainbeherak¹⁷,

16. Pascal Bruckner, *La tentación de la inocencia*, Anagrama,artzelona, 1996.

17. Zygmunt Bauman-ek formula hau ematen digu: posmodernitatea = modernitatea – (ken) ilusioak.

autonomia subjektiboa lantzeko desio eta eskubideen hedapenak, eta hainbat fenomenok betebeharrak zibikoak hustu egin dituzte eta moral indibidual eta interindibidualak baliorik gabe utzi, horrela hiritarren demokraziak baino indibiduen demokraziak dira gaurkoak. Betebeharrak *ahulak* baino ez ditugu maite, horrela Lipovetsky-ren ustez, gaur egungo demokrazien ezaugarrietariko bat *mingabeko etika* batean oinarritzea da. Izaera modernoari *modernismoaren* estiloa gainezarri zaio, beraz, modernoa denak etengabeko modernizazioa eragin behar du, eta logika berriztatzaile horrek ez du astirik sortutakoa ezarri, sendotu eta iraunarazteko. Egoera horren metafora urtero lau aldiz aurkezten den modaren gurrpil zoroa da.

Kontua da bateraezina den hirukote magiko baten existentzia: askatasuna, duintasuna eta indibidualizazioa. Horri guztiari forma ematea oso zaila da, oso kontrakoa delako edozein konpromiso-formarekin. Apolitizazioa ote da ondorioa?

2.5. Apolitizazioa?

Egoera apolitikoa despolitikoa baino kezkarriagoa da. Baina, hala eta guztiz ere, hortik ezingo genuke pasatu apolitizazioaren tesira, nahiz eta bere korolaria logikoa den. Baina politika egiteko ahalmena zeharo zailtzen da, triada hori kontuan hartuta. Gaur egungo partaidetzaren zenbait ezaugarri honakoak dira:

1. Desinstituzionalizazioa eta informalizazio hazkorra politika egiteko moduetan. Gainera erakargarritasuna eskatzen zaio, ez diziplina.
2. Partaidetza orokortuak errefusatu egiten dira. Partaidetza eta konpromisoa erakunde ezberdin eta fragmentatuetan gertatzen da. Hala ere, gure energiak eta kezkek ez ditu erakunde batek ere agortzen.
3. Egitura jerarkiko eta aukera kolektibizitateak ukatu egiten dira. Enfasia ematen diegu autoerrealizazioari, partaidetza zuzenari eta gogobetetze pertsonalari.
4. Partaidetzan *zapping-a* egiten dugu.

Partaidetza zibikoaren inguruan bi diagnostiko daude: 1. Lehenak dio konpromiso zibikoa gainbeheran dagoela, horrek desafekzio demokratikoa dakarrela eta gizarte-kapitala ahuldu egiten dela; 2. Bigarrenak dio hiritargoa eta parte hartzeko egitura eraldaketa sakon bat esperimintatzen ari dela, egiturak kritikatu egiten dira eta instituzionalizatu gabeko ekintza kolektiboko era berriak sortzen ari dira. Putman-ek esan du 1940an hasitako *belaunaldi zibiko luze* baten gainbehera gertatzen ari dela, eta gazteek euren gurasoek sortu eta suspertu zituzten partaidetza-egiturak baztertzen dituztela. Beste batzuek, ordea, belaunaldi berriek politika eta eskuharki partaidetza tradizionala ukatzen dutela diote, baina ezin daiteke esan apolitikoak eta, are gutxiago, inaktiboak direnik, zeren Beck-en ustez *askatasunaren seme/alabek* antipolitikaren gazte-politika eta behopolitika praktikatzan dute.

2.6. Emaizarik gabeko amaiera bat.

Politika klabe tradizioaletatik ikusten duenarentzat, hala gazteria nola bere praktika ikusezina da. Esaterako, politika egiteko forma berriak ez ditugu sumatuko, baldin eta konpromisoa eta afiliazioa kidetzen baditugu, partaidetza autosakrifizioarekin nahasten badugu eta politikaren egile eta hartzaileen artean bereizi

egiten badugu. Askatasunaren seme-alaben belaunaldia askatasunak sorrarazten dituen arazoen alde borrokatzen duen belaunaldia da, norberaren auto-determinazioa eta elkarrekiko dependentzia bateratu nahi dituzte; indibidualistak dira taldeen arabera jokatzeko prest daude eta satisfakzioa printzipio esanguratsua zaie. Gaur egungo partaidetza-forma berriak interes indibidualen eta ekintza kolektiboen artean oreka egoki eta luzarokoa bilatzen ari dira. Oraingoz, horrelako partaidetzak, espazioak eta partaidetza-egiturak sistema demokratikoaren periferietan baino ez ditu aurkitzen. Kontua da, ez aurkitzeaz gain, agian ez dutela nahi ere sistema horren zentroan jokatu. Lasaigarria izan daiteke jakitea, agian, partaidetza ulertzeko modu baten krisia dugula, eta ez partaidetzaren krisia. Lehenaren aurrean bageunde, ez legoke arazorik. Esaterako, Beck guztiz konbentzitura dago jendea instituzioak baino askoz hobeto egokitu dela egoera berrira. Nolanahi ere, zalantza hauek ditut:

1. Posible ote da gaur egungo poli-subjektuez gaindiko subjektu bat sortu? Beharrezkoa ote da?
2. Posible ote da gaur egungo objektu politikoen agenda katalogatzea eta hierarkizatzea? Beharrezkoa ote da?
3. Aurreko galdera bietako kezkak gaindi al daitezke indibidualizazioa, askatasuna eta duintasuna garaile diren garaiotan?

2.7. Mundua gero eta zailagoa

Mundua gero eta zailagoa da, hori da dakidan gauza bakarra. Den-dena, batez ere bizitza soziala, arriskutsu bilakatu da. Ez gaude logika kolektiboen garaian eta horretarako aurkari bat dugu: gizaki banakotua. Indibiduo berri horren ezaugarriak ez dira soilik egoismoaren adierazpena; askatasunarena ere hortik eragiten dabil. Indibiduoaren irrupzioa eta objektu politikoen ugaltzea aldi berean gertatu dira. Indibiduoaren kontuan hartu beharreko errealitatea da, eta abiapuntutzat hartu gura ez duen mugimenduak ez du etorkizunik edukiko. Ere horretan, gaur egun, eskumak partida irabazia dauka, ekonomikoki hiperliberalak izan arren, espazio nahikoa uzten baitio bizitzeko egungo era erlatibistari. Hasierako neokontserbadoreek kritikatzeko zutena txertatu egin dute euren politika egiteko eskumamoduan. Ekonomikoki ultraortodoxoak dira, baina arlo kulturalen erlatibistak.

Erlatibismoa oso eremu emankorra da bere biografian gero eta tradizio gutxiagorekin eta pertsonatasun gehiagorekin bere identitatea ekoizten duenarentzat. Bestalde, ezkerrek lagundu egiten dio eskumari erlatibismoaren irakurketa alai eta koloretsu bat bideratzen. Eskumak aukera aprobeztatu egiten du, bat datorrelako gaur egungo gizarte-praktika sozial indibidualekin. Egungo *zôon potilikon* horretan desertzio-forma ugari daude, baina denak norbanakoarengan oinarrituak. Norbanako indibidualistak badaude, baina ezin da ahaztu gainerako guztiak ere norbanako indibiduoak garela. Ezin da bestela izan destradizionaltzen eta desinstituzio-naltzen ari den gizarte batean.

Ohar bibliografiko txiki bat: Testu honetarako erabilitako bibliografiatik hiru teoriarari aipatu gura ditut: Zygmunt Bauman, benetako aurkikunde bat; Ulrich Beck, interesgarria bezain nahasia; eta, amaitzeko, Pascal Bruckner, frantsez saiozile interesgarria. Hirurak oso interesgarriak dira, baita euren liburu guztiak ere.